

# 2/26

## *irizpena*

Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen

dekretu-proiektuari buruzkoa  
Bilbo, 2026ko apirilaren 24a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## Irizpena 2/26

---



## I.- AURREKARIAK

---

2026ko martxoaren 23an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, Dekretu honen xedea da Eusko Jaurlaritzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez emango dituen desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko dirulaguntza-programak eta zerbitzuak arautzea; horien helburua da pertsona horiei laneratzeko eta lan-jarduera egonkorra eta kalitatezkoa lortzen laguntzea, bai eta enplegua mantentzen laguntzea ere. Halaber, dekretu honen xedea da Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzea. Zehazki, indarrean dagoen urriaren 17ko 152/2023 Dekretua azken arau-aldaketetara egokitu nahi da.

Berehala bidali zitzaizen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezela, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2026ko apirilaren 15ean eta 21ean bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko, eta han gehiengoz onartu zen.

## II.- EDUKIA

---

*“Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua”* honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, 93 artikulua 4 kapitulutan antolatuta, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Zioen azalpenak dioenez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzen araubidea eguneratzen du, eta indarraldi mugagabea duten laguntzen eta dirulaguntzen oinarri arautzaileak bertan xedatutakora egokitzeko betebeharra ezartzen du.

Dekretu honen helburua da aipatu legera egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programen eta zerbitzuen erregulazioa eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa. Hala, indargabetu egingo da urriaren 17ko 152/2023 Dekretua. Beraz, ez da erregulazio berritzailea, jasotzen dituen dirulaguntza-programen tipologiari dagokionez, 152/2023 Dekretuan jasotakoekin berdina baitira.

Horrela, bada, dekretu honen xedea, aurrekoaren antzera, honako hau da: alde batetik, II. kapituluaren, Eusko Jaurlaritzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez eman ahal izango dituen dirulaguntzen esparru orokorra arautzea, desgaitasuna duten pertsonen lan-jarduera egonkorra eta kalitatezkoa eskura dezaten sustatzeko, eta, bestetik, dirulaguntza-programen oinarri arautzaileak jasotzen ditu; programa horien deialdia edo aurrekontu-zuzkidura Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreari buruzko Legea urtero indarrean dagoenean egin ahal izango da.

III. kapituluaren, desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko ekimenak arautzeko esparrua ezartzen du. Azkenik, IV. kapituluaren, Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen da, eta haien kalifikazioa egiteko eta erregistroan inskribatzeko prozedura ezartzen da.

Dekretu honen beste helburu bat da desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko programen araudi erregulatuarekin egokitzea Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa administrazio-organismo autonomo izatetik zuzenbide pribatuko ente publiko izatera pasatzearen ondoriozko aldaketetara, Espainiako Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera. Batez ere dirulaguntza-deialdien inguruko kudeaketa- eta ebazpen-organoetan egin dira aldaketak.

Dirulaguntzak bateragarriak dira lehiakortasunari buruzko Europar Batasuneko araudiarekin. Hala, ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan —laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekiko bateragarriak direla ezartzen du— xedatutako eskakizunak eta baldintzak bete dira, bai eta 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamenduan —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa (de minimis laguntzak)— xedatutakoa ere, salbu eta II. kapituluko 2. atalean —Enplegu lagunduko jarduketarako dirulaguntzak— araututa dauden dirulaguntzen kasuan; izan ere, dirulaguntza horiek ez dira estatu-laguntzat hartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate onuradunei ez dielako inolako abantaila ekonomikorik ematen.

Desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko, dekretu honetan araututako programez gain, badira hobariak ere gizarte-segurantzako kotizazioan; Estatuak arautzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura finantzatzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren enplegu-politikaren esparruan, desgaitasuna duten pertsonen ematen zaien arretaren barnean sartzen dira, enplegua sustatzeko programekin batera, enplegurako orientabide- eta prestakuntza-zerbitzuak, hain zuzen ere politiken eta jardunbideen zeharkakotasun-printzipioa aintzat hartuta. Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio zerbitzu horiek diseinatzea eta gauzatzea, eta, eginkizun horretan, aintzat hartzen dira talde horren premia espezifikoak. Horretarako, entitate espezializatuekin lankidetzan jarduten du, desgaitasuna duten pertsonen orientabidea emateko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatzeko, eta pertsona horien gaitasunak eta enplegarritasuna hobetzea xede duten ekintza egokituak txertatzen ditu prestakuntza-eskaintzan. Xede horri begira, III. kapituluaren, desgaitasuna duten pertsonen orientabidea eta enplegurako prestakuntza emateko jarduketak arautzen dira.

Bestetik, aurreko 152/2023 Dekretuaren IV. kapituluaren mantentzen da; Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen du, eta haien kalifikazioa eta inskripzioa egiteko prozedura ezartzen. Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-inklusioren arloko eskumena duen zuzendaritzari atxikita dago.

Enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa eskuratzeko eta zentroa erregistroan inskribatzeko baldintzak arautzen dira, bai eta horretarako prozedura ere; era berean, inskripzio-liburuaren antolamendua, jarraipen- eta kontrol-jarduketak, eta, azkenik, deskalifikatzearen eta erregistroan ezeztatzearen kausak eta horretarako prozedura arautzen dira.

Arau-testu hau sortzeko eta garatzeko, genero-ikuspegia kontuan hartu da. Bertan arautzen diren

ekintza guztiak berdintasuna sustatzearen ikuspegitik erabaki eta baloratu dira, desberdintasunak ezabatzeko eta aukera-berdintasuna sustatzeko, bat etorritik martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean jasotako printzipio eta betebeharrekin

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

*"Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua"* gure irizpenaren mende jarri da. Izan ere, dekretu-proiektu horren helburu nagusia da programa horien egungo erregulazioa urriaren 17ko 152/2023 Dekretua indarrean jarri ondoren onartutako araudiaren arabera egokitzea, haren edukiari eragiten baitio.

Laburbilduz: Abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duenak, EAeko dirulaguntzen araubidea eguneratzen du, beste lege batzuetan sakabanatuta zeuden arauak biltzen ditu, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko artikuluetara egokitzen da; Batzordearen 2023/202831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; eta Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu publikoa zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren estatutuak, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutakoak. Gainera, programa horietako batzuetan aldaketak egin dira, haien operatiba eta kudeaketa hobetzeko, baliabideen esleipena hobetzeko, laguntzen kudeaketan eraginkorragoak izateko eta onuradunei emandako zerbitzua hobetzeko.

Beraz, ez dakar erregulazio berritzailearik arautzen dituen programa eta zerbitzuen tipologiari dagokionez, 152/2023 Dekretuan jasotakoak baitira. Dekretu horren edukia Kontseilu honen irizpenaren<sup>1</sup> xede izan zen bere garaian, eta 2026an indarrean jarraitzen dute haren kontsiderazioek.

Arau berriak, 152/2023 Dekretuak bezala, desgaitasuna duten pertsonen enplegu-aukerak eta lanbide-sustapena bultzatu nahi ditu lan-merkatuan, enplegua bilatzeko, lortzeko, mantentzeko eta enplegua itzultzeko beharrezkoak diren laguntzak eta guzti. Beraz, positiboki baloratzen dugu horren xedea.

Era berean, 2023ko irizpenean adierazitakoa berretsi nahi dugu: dekretu berri honekin aukera galtzen da arlo horretan sakontzeko eta desgaitasuna duten pertsonen enplegua (enplegu babestua barne) sustatzeko dauden mekanismoak aztertzeko.

Horri dagokionez, gai orokor hauek aipatuko ditugu, eta, ondoren, gogoeta espezifikoetan proposamen zehatzetara eramango ditugu:

- Lehenik eta behin, Enplegu Zentro Bereziek (EZB) EAEn desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko egiten duten lan garrantzitsua baloratzen dugu, baina ez da ahaztu behar urritasuna duten pertsonak integratzeko pasabideak direla: haien eginkizunetako bat da babestutako lan-merkatutik lan-merkatu arruntera igarotzea erraztea.

Izan ere, gure ustez, beharrezkoak diren mekanismo guztiak antolatu behar dira desgaitasuna duten pertsona guztien enplegu arrunterako trantsizioa bermatzeko, bai EZBetatik abiatuta (trantsizio horretarako unitate profesionalak izan beharko lituzkete nahitaez), bai enplegu lagunduko programei heldu dieten enpresa arruntetatik, eta inplikaturako eragile guztiek urratsak

---

<sup>1</sup> Ikus Euskadiko EGABren maiatzaren 8ko [6/23 Irizpena](#).

eman behar dituzte iragate horren emaitzak hobetzeko.

Ildo horretan, II. kapituluko 1. atalak **lan-merkatu arruntean desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzeko dirulaguntzak** jasotzen ditu, baina bitara mugatzen ditu: kontratazioarako laguntzak eta lanpostuak egokitzeko eta oztopoak kentzeko laguntzak.

Hala ere, gure ustez, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioaren aginduek eta orientabideek eta haien garapen-tresnek anbizio handiagoa eskatzen dute enplegu arrunta sustatzeko helburuan. Alde horretatik, uste dugu atal honetan aurreikusitako erregulazioa, positiboa izan arren, ez dela nahikoa, bi dirulaguntza lerrotara mugatzen baita.

Horregatik, honako jarduera-ildo hauek jasotzea proposatzen dugu:

- ✓ Praktiketako programetarako laguntzak, beken edo ekintza positiboko beste neurri batzuen bidez, desgaitasuna duten Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleentzat. Jarduera horrek desgaitasuna duen pertsonarentzako nahiz enpresa arruntarentzako laguntzak edo neurriak bilduko lituzke, enpresen, unibertsitateen eta Lanbide Heziketako zentroen arteko lankidetzak-hitzarmenak sustatuz.
- ✓ Enplegu arrunta sustatzeko programa esperimentaletarako laguntzak, ordutegi-malgutasuneko neurriak, telelana edo laneratzea errazten duten beste formula batzuk barne.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen enplegu autonomoari laguntzeko ildo espezifiko bat txertatzea, horien definizioa, sustapen-neurriak eta laguntza aplikagarriak barne.

Bestalde, Dekretu-proiektuaren 9.4 artikulua arabera, desgaitasuna duten pertsonak diruz lagundutako lan-merkatu arruntean kontratatzea *"lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izan daiteke"*.

Gure iritziz, eta neurri horien xede den kolektiboa salbuespenezkoa dela ulertuta, lanaldi osoko kontratazioa bultzatu behar da, posible eta gomendagarria den kasu guztietan.

Gainera, II. kapituluko 3. atalak **enplegurako dirulaguntzak jasotzen ditu EZBetan**. Horiei dagokienez, adierazi nahi dugu, lehenik eta behin, garrantzitsua iruditzen zaigula zentro horietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko dirulaguntzak enpleguaren kalitate-estandarrek betetzearen baldintzapean egotea. Estandar horiek kontratu-egonkortasuna, soldata-baldintzak eta hitzarmen kolektiboa betetzea dira.

Era berean, EZBetako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateek, Dekretu honen arabera dirulaguntzen onuradun ere izan daitezkeenek, egitura-izaerari eutsi behar diote, eta horrek eragina du emandako zerbitzuaren kalitatean eta ibilbide indibidualizatuen garapenean.

- Berrito diogu beharrezkoa dela desgaitasuna duten **langileen lan-baldintzak hobetzen aurrera egitea**, erreferentziatzen hartuta negoziazio kolektiboa, sektorekoa zein enpresakoa, eta enplegu-bide guztiak (EEE eta merkatu arrunta), hori guztia kolektibo horren enpleguaren kalitatea bermatzeko.

- Hala, araudi hori eman zenetik urte asko igaro direnez, beharrezkotzat jotzen dugu haren **emaitzak ebaluatzea**, bai eta mekanismo horiek sortu ziren helburuetarako balio izan duten edo ez baloratzea ere. Horiek, berriz diogu, desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntera igarotzera bideratzen dira funtsean.

Ebaluazio horretarako, oso komenigarria litzateke arauari informazio- eta estatistika-sistema bat gehitzea, desgaitasuna duten pertsonen laneratzean izandako aurrerapenak ebaluatzeko oinarri gisa. Horretarako, aldizkako datu eguneratuak eduki eta jakin behar dira, sexuaren, adinaren, desgaitasun motaren eta enplegu-modalitatearen arabera berezita (gutxienez).

Era berean, komeniko litzateke honako alderdi hauen jarraipena eta erregistroa egitea, eta bestetik, jendaurrean jartzea: desgaitasuna duten langileen erreserba-kuota betetzeari buruzko urteko ikuskapenak, kuota hori ez betetzeagatiko zehapenak eta horien batez besteko zenbatekoak, bai eta ordezeko neurrien bidez erreserba-kuotak betetzen dituzten enpresen kopurua ere. Horrez gain, onuragarri litzateke soldata-baldintzak eta aplikatu beharreko lan-hitzarmeneko gainerako baldintzak alderatzea, desgaitasuna duten pertsonak enplegu babestuan edo arruntean dauden kontuan hartuta.

- Bestalde, ez da ahaztu behar **desgaitasun mota eta maila desberdinak** daudela. Egokia iruditzen zaigu desgaitasun maila handiagoa edo desgaitasun mota jakin batzuk izateagatik laneratzeke zailtasun handienak dituzten pertsonen kontratazioan jartzea arreta eta horientzako pizgarriak areagotzea.

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

### Zioen azalpena

Dekretu-proiektuaren hasieran, erreferentzia egiten zaio "Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren" 27. artikuluari. Hala ere, ezin da alde batera utzi Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuetako Batzordeak duela gutxi onetsi duela "desgaitasuna duten pertsonen lan eta enplegurako duten eskubideari buruzko 8. ohar orokorra", zeinak "konbentzioaren 27. artikuluan jasotako lanerako eta enplegurako eskubideari dagokionez estatuek dituzten betebeharrak argitzea" baitu helburu.

Beraz, zioen azalpenean, testuinguruan jartze aldera, ohar orokor horren **berariazko aipamen bat txertatzea** proposatzen dugu, baita horren ohar nagusia ere, adierazitako moduan.

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea

Artikulu horren **lehen apartatuak** xedatzen duenez, "dekretu honen xedea da desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunari loturiko laguntza- eta zerbitzu-programak arautzea, Eusko Jaurlaritzak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eman ahal izango dituenak, desgaitasuna duten pertsonen laguntza ematea eta horiek lan-jarduera egonkor eta kalitatezkoa lortzea sustatzeko, bai eta enplegua mantentzea bultzatzeko ere".

Aurreko gogoetan azaldutakoarekin bat etorriz, testu hori honela **aldatzea** proposatzen dugu:

*“1. Dekretu honen xedea da **desgaitasuna duten pertsonen merkatu eta lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarri batean askatasunez aukeratutako edo onartutako lana izateko duten eskubidea bermatzera bideratutako politikak, programak, neurriak, euskarriak, pizgarriak eta laguntzak arautzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aurreikusitako baldintzetan...***”

### **3. artikulua. Desgaitasuna duen pertsonaren definizioa, dekretu honen ondorioetarako**

**Artikulu honen 2. apartatuak laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona desgaituak** definitzen ditu: *“a) Garuneko paralisia, gaixotasun mentala, desgaitasun intelektuala edo autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua dutenak. b) Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duten pertsonak, % 65eko edo gehiagoko desgaitasun aitortua dutenak”.*

Estatuko oinarrizko araudia kontuan hartuta, gure ustez, desgaitasuna duten pertsonen karakterizazioa/sailkapena hobetu daiteke, pertsona horiek duten desgaitasun motaren arabera, hala, laneratzeko zailtasun handiagoak horregatik dituzten ala ez ondorioztatzeko, baita zailtasun hori bereziki desgaitasunaren ehunekoari lotu beharko litzaiokeen ala ez ondorioztatzeko ere.

Nolanahi ere, eta aurkeztutako arauan irizpide horri eutsiz gero, kontuan hartu beharko litzateke % 65etik beherako desgaitasun fisiko aitortua duten pertsona askok ere laneratzeko zailtasun bereziak izan ditzaketela, eta, horrenbestez, ekintza positiboko neurri osagarriak behar dituztela.

Hala, zenbait pertsonak diagnostiko eta desgaitasun-tipologia asko dituzte (bizkarrezur-muineko lesioak, kalte zerebrala, muskulu-distrofiak, gaixotasun neurodegeneratiboak, eta abar), zeinek, % 33tik % 64ra bitarteko desgaitasun mailarekin, lan-merkatuan sartzeko zailtasun larriak eta laguntza-premiak baitituzte, “laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona desgaitutzat” hartzen direnek behar dituzten neurri berean gutxienez.

## **II. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAK**

### **1. sekzioa. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak**

#### **Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean kontratatzeke dirulaguntzak**

##### **10. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Artikulu honek desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean kontratatzeke dirulaguntzaren zenbatekoa arautzen du. Horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen dugu oreka lortzea desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean laneratzeko ematen diren laguntzen eta enplegu babesturako ematen direnen artean.

Berriz ere diogu, enplegu babesturako laguntzen garrantzia zalantzan jarri gabe, desgaitasuna duten pertsona batzuek laguntza-modalitate hori behar dutelako, aurrera egin behar dela kolektibo horrek ingurune inklusibo, irisgarri eta irekietan enplegua izateko duen eskubidearen bermearekin koherentea den arauketari dagokionez, konbentzioaren 27. artikuluaaren arabera. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu lan-merkatu arruntean enplegua lortzera eta horri eustera bideratutako laguntzak lehenestea, zenbateko handiagoak ere ezarrita.

## 2. sekzioa. Enplegu lagunduko jarduketetarako laguntzak

### 22. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Artikulu honetan 5. paragrafoa gehitzea gomendatzen da:

***“5. Enplegu lagundurako jarduerak egiturazkoak izango dira enplegu-sistema publikoaren barruan, eta jarraipena bermatu beharko da urte anitzeko plangintzaren eta finantzaketa nahikoaren bidez, hartatik eragotzi gabe aldizkako deialdien bidez garatzea”.***

### 24. artikulua. Erakunde onuradunak

Artikulu honetan **betekizun bat gehitzea** iradokitzen dugu:

*“Enplegu lagunduko jarduerak garatzeko dirulaguntzen onuradun izan daitezke elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk, eta enplegu-zentro bereziak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroan halakotzat kalifikatuta eta inskribatuta daudenak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte: ...*

***e) Enplegu Unitate Lagunduei atxikitako langile teknikoek lan-baldintza egokiak eta adostutako prestakuntza-plana izango dituztela bermatzea”.***

### 25. artikulua. Enplegu lagundurako unitateen osaera eta funtzioak

Lehenik eta behin, artikulu honetan **beste paragrafo bat gehitzea** gomendatzen da:

***“8. Erregelamendu bidez ezarri ahal izango dira lan-prestakuntzako profesional bakoitzeko hartzaileen gehieneko ratioak, arretaren kalitatea eta gizarteratze-prozesuen eraginkortasuna bermatzeko”.***

Bigarrenik, uste dugu Enplegu Lagundurako Unitateak gorren laneratzean lan egiten badu, eskatzen diren titulazio-eskakizunen artean gutxienez kide baten zeinu-hizkuntzako kualifikazioa sartu beharko dela.

### 30. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Beharrezkotzat jotzen dugu dirulaguntza horiek ordaintzeko egungo prozedura aldatzea, dirulaguntzen ordainketarako ezarritako epeen ondorioz erakundeen enplegu lagunduko unitateetan diruzaintzako tentsioak arintzeko.

Aurretiko diruzaintzako tentsioak murrizten lagunduko duen ordainketa-prozedura bat planteatzen dugu, bi ordainketa-epe mantenduz, Lanbideri deialdi honen babesean erakundeek lortutako helburuen eta txertaketen errealitatera egokitzeko eta egiaztatzeko lana erraztuz.

Horregatik, hurrengo alegazioaren bidez, Enplegu Lagundurako Programaren laguntza hori ordaintzeko egungo prozedura aldatzea proposatzen dugu. Ildo horretan, 30. artikulua **idazteko proposamen hau** egiten dugu, letra lodiz nabarmentzen diren aldaketekin:

"Atal honetan aurreikusitako ekintzak egiteko emandako laguntzak bi zatitan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo ordainketa, **dirulaguntzaren % 70ekoa, dirulaguntza eman ondoren, eta enplegu lagunduko jarduerak benetan hasi direla, enplegu lagunduko unitatea eratu eta eraginkorra dela eta diruz lagundutako jarduketei hartzaileak esleitu zaizkiela egiaztatu ondoren.**

b) Bigarren ordainketa, gainerako **% 30ekoa, edo lortutako eta justifikatutako gizarteratze-helburuekin bat etorri egin beharreko doikuntzaren ondoren ateratzen den zenbatekoa.**

Bigarren ordainketa hori jarduketak amaitu ondoren egingo da, gauzatu direla eta dirulaguntza aplikatu dela justifikatu eta gero".

### 31. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea

2. atalean, letra lodiz nabarmendutakoa gehitzea gomendatzen da:

"2. Enplegu lagundurako jarduerak justifikatzeko dokumentazioarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

...

**d) Langileen gogobetetze-maila ebaluatzeko txostena".**

### 3. sekzioa. Enplegurako dirulaguntzak Enplegu Zentro Bereziatan

#### 34. artikulua. Sekzio honen xedea

Artikulu honetan, letra lodiz nabarmendutako **testua gehitzea** gomendatzen da:

"Sekzio honen xedea da desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro bereziatan laneratzeko dirulaguntzak arautzea, dirulaguntzen lerro hauen bidez, **enplegua lortzea ez ezik, enpleguaren kalitatea hobetzea eta enplegu arrunterako trantsizioa benetan sustatzea bermatzeko ere.."**

Arrazoa da, arauaren zioen azalpenean esaten den bezala, "ez dela alde batera utzi behar desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean ahalik eta gehien sartzeko azken helburua, eta, horregatik, aurrera egin behar da enplegu-politika aktiboen betearazpenean, eta formula berriak garatu behar dira, kolektibo hori lan-merkatu arruntean laneratzeko lehentasuna izango dutenak".

#### 36. artikulua. Onuradunen betebeharrak espezifikokoak

Lehenik eta behin, **1. atalean, letra lodiz** nabarmendutako testua sartzea gomendatzen da:

"1. 71. artikuluan araututako betebeharrak orokorrean gain, 3. atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzen dituzten enplegu-zentro bereziak memoria bat aurkeztu beharko dute ekitaldi bakoitzeko lehen seihilekoan enplegu-zentro bereziak aurreko urte naturalarekin alderatuta izandako jarduerari buruz.

Memoria horretan honako hau jaso beharko da:...

**h) Indarrean dagoen lan-araudia eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa betetzen dela egiaztatzea".**

Bigarrenik, **3. atal bat gehitzeko** eskatzen dugu, honako testu hau jasoz:

***“3. Erakundeek urtero eman beharko dute langileak enplegu-zentro berezitik lan-merkatu arruntera igarotzeko prozesuen berri”.***

**Desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko dirulaguntzak**

### **38. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Artikulu horren **1. paragrafoak** hau xedatzen du: *“Lanaldi partzialeko lan-kontratuak eta/edo errendimendu txikiko kontratuak kasuan, egindako lanaldiarekiko eta/edo errendimendu txikiko kontratuak proportzioan murriztuko da dirulaguntza”.*

Gure ustez, errendimendu txikiko kontratuak erabiltzen ez den modalitate bat dira, eta bitarteko beste formula batzuen mesederako bihurtu beharko lirateke, desgaitasunen bat duten eta premia handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntera igarotzea erraztuz. Horregatik, 38.1 artikuluan aipatzen dena **kentzea** proposatzen da.

### **43. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa**

Hala, **1.d.4) apartatuan** ezartzen denez, *“kontratazio berriek plantillaren gehikuntza garbirik eragiten ez badute, betetzen duten lanpostua hutsik honako arrazoi hauengatik geratu dela justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira: langilearen dimisioa, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan-denboraren borondatezko murrizketa edo bidezko diziplinazko kaleratzea, hau da, ez da kaleratzearen ondoriozkoa izango”.*

Gure ustez, 6/23 Irizpenean adierazi genuen bezala, LLOk justifikazio horiei buruzko informazioa izan beharko luke.

**Desgaitasuna duten langileentzako enplegu egonkorra sortzen duen inbertsiorako dirulaguntzak**

### **46. artikulua. Diruz lagun daitekeen jarduketa**

Desgaitasuna duten langileentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsiorako laguntzak, artikulu honetan jasotakoak, enplegu babestuaren eremura mugatzen dira.

Arestian azaldutakoaren ildotik, proposatzen dugu enpresa arruntek ere laguntza horiek jasotzeko aukera izatea, desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuotaren legezko ehunekoa gainditzen badute. Horretarako, egokitzat jotzen den gutxieneko ehunekoa ezarriko da, laguntza horiek jaso ahal izateko.

### **52. artikulua. Enpleguari eusteko betebeharra**

Artikulu honek xedatzen duenez, *“atal honetan aurreikusitako laguntzen enpresa onuradunak behartuta daude diruz lagundutako inbertsioak sortutako kontratazioekin lortutako enplegu finakoaren mailari eustera, gutxienez bi urtez, eta desgaitasuna duen beste langile batek ordezkatu beharko ditu sortzen diren lanpostu hutsak, baja hartu eta hilabeteko epean”.*

Gure ustez, enpleguari eusteko epea, gutxienez, **hiru urtekoa** izan beharko litzateke.

### **Enplegu-zentro berezien aurrekontu-orekarako eta bideragarritasunerako laguntzak (55. artikulua eta hurrengoak)**

Guk deritzogunez, langileen legezko ordezkariak dirulaguntza horien eskaeren berri izan beharko luke, EZBaren egoeraren jakinaren gainean egon dadin.

#### **Xedapen gehigarriak**

Irizpen honetan dekretu honek araututako ekimenen jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharraz adierazitakoarekin bat etorriz, xedapen gehigarri bat **gehitzea** proposatzen da:

#### **"BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Jarraipena eta ebaluazioa**

**1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak dekretu honetan araututako *programen jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza egiteko mekanismoak garatuko ditu.***

**2. Dekretua indarrean jarri eta bi urteko epean, BESALDIk, enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko organoak, araututako neurrien eraginaren ebaluazio integrala egingo du, arreta berezia jarriz enpleguaren kalitateari eta merkatu arruntean sartzeari (enplegu-zentro berezietan sortutako enplegua, enplegu arrunterako trantsizio-tasak, funts publikoen erabilera...), bai eta zentro horiek sortutako gizarte-balioari ere".**

## **V.- ONDORIOA**

---

Euskadiko EGABen iritziz, egokia da "Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua" izapidetzea, kontsulta-organo honek hura aldatzeko egin dituen gogoetak jasota.

Bilbon, 2026ko apirilaren 24an

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria